



Indarkeria matxistaren gaitzesteko adierazpena

ARRASATEKO UDALAKO ALDERDI GUZTIEK azaldu nahi dugu irmoki gaitzesten dugula Arrasaten joan de astebukaeran gertatutako eraso matxista.

Gogorarazi nahi dugu eraso matxistak emakumeenganako indarkeriaren arazoaren alderdi bat baino ez dutela erakusten.

Emakumeenganako indarkeria (psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala) emakumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa larri eta onartezina.

Eraso honek berriro dakarkigu gogora erakundeek eta euskal gizarte osoak daukagun erantzukizuna, gure udalerrietan Berdintasuna eraginkor egiteko. Zentzu horretan, gure sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak indartzen jarraituko dugu, emakume txokoko (943794139) eta gizarte zerbitzuetako (943252007) zerbitzuak ere, bai eta doako aholkularitza juridikoa lehenengo kontsultan, biolentzia matxista kasuetan.

ARRASATEKO UDALEKO ALDERDI GUZTIEK elkartasuna adierazi nahi diete erasotua izan den emakume biziraulari, bere senideei eta lagunei.

Arrasateko udaleko alderdi guztiek, gaur arratsaldeko 20:00tan herriko plazan, emakumeen mundu martxak deitu duen **gaitzespen konzentrazioan parte hartuko dugu**. Honekin batera, herritarrei parte hartzera animatzen ditugu.